Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1409

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 3koa, Berrikuntza eta Energia sailburuordearena; horren bidez publiko egiten da 2009ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterrei dagozkien enpresen elkarteei laguntzak emateko deialdia.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduak (2000ko abenduaren 11ko EHAAn argitaratu zen 235. zenbakiarekin) Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterrei dagozkien enpresen elkarteei bideratutako laguntzak arautzen ditu. Agindu hori 2007ko ekainaren 1eko Aginduak (2007ko ekainaren 13ko EHAAn argitaratu zen 113. zenbakiarekin) eta 2008ko otsailaren 14ko Aginduak (2008ko otsailaren 28ko EHAAn argitaratu zen 42. zenbakiarekin) aldatzen dute.

Laguntza horiek emateko ekonomia-baliabideak abenduaren 29ko 19/2008 Legean ezarritako aurrekontu-partidetatik aterako dira; lege horren bitartez, 2009ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dira.

Horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterrei dagozkien enpresen elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dituen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, bertan ezartzen diren laguntzen deialdia egin behar da 2009ko ekitaldirako, horretarako beharrezkoak diren arauak emanez.

Aurrekoa aintzat hartuta, eta aipatutako aginduaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Ebazpen honen helburua 2009ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterrei dagozkien enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dituen aginduan aurreikusitako laguntzen deialdia egitea da.

2009an, xede horretara 2.504.500 euro bideratuko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera.

Deialdi honen kontura emango diren diru-laguntzen guztizko bolumenak ez du gainditu artikulu honetan

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

1409

RESOLUCIÓN de 3 de marzo de 2009, del Viceconsejero de Innovación y Energía, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas a las agrupaciones de empresas pertenecientes a los clusters prioritarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para el ejercicio 2009.

La Orden de 28 de noviembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo (BOPV n.º 235, de 11 de diciembre de 2000), regula las ayudas a las agrupaciones de empresas pertenecientes a los clusters prioritarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Esta Orden ha sido modificada por Ordenes de 1 de junio de 2007 (BOPV n.º 113, de 13 de junio de 2007) y por Orden de 14 de febrero de 2008 (BOPV n.º 42, de 28 de febrero de 2008).

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en la Ley 19/2008, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009.

Así, y de conformidad a lo establecido en el artículo 9 de la Orden de 28 de noviembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, que regula las ayudas a las agrupaciones de empresas pertenecientes a los clusters prioritarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009 dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 9 de la orden de referencia.

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución la convocatoria, para el ejercicio 2009 de las ayudas previstas en la Orden por la que se regulan las ayudas a las agrupaciones de empresas pertenecientes a los clusters prioritarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Para este fin se destinará un total de 2.504.500 euros para 2009, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria no podrá superar el importe

ezarritako zenbatekoa edo zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena, indarreko legedian aurreikusitako kredituak lotzeko edo aurrekontuak aldatzeko erregimenari jarraiki. Beraz, zenbateko hori agortzen denean ez da laguntza gehiago emango, eta xedapen honek une horretan bertan utziko dio eraginkorra izateari. Zirkunstantzia horietakoren bat badago, Berrikuntza eta Energia sailburuordearen ebazpenaren bitartez emango da horren berri.

2. artikulua.– Baldintzak.

1.– Eskatzaileek, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterrei dagozkien enpresen elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dituen aginduan aurreikusitako laguntzak eskuratu ahal izateko, adierazitako aginduaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.– Era berean, Plangintza eta Estrategia Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskaerak eta gainerako dokumentazioa, bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusita dagoen bitartekoren bat erabiliz.

3.– Eskaerak aurkezteko epea 2009ko maiatzaren 15ean bukatuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 3a.

Berrikuntza eta Energia sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO ZUDAIRE ARANA.

consignado en este artículo o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. No procederá, por tanto, la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, suspendiéndose a partir de ese momento la eficacia de la presente disposición. De la concurrencia de cualquiera de dichas circunstancias se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Innovación y Energía.

Artículo 2.– Requisitos.

1.– Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden por la que se regulan las ayudas a las agrupaciones de empresas pertenecientes a los clusters prioritarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 4 de la Orden de referencia.

2.– Asimismo, los solicitantes deberán dirigir y presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en la Dirección de Planificación y Estrategia, bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 15 de mayo de 2009.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 2009.

El Viceconsejero de Innovación y Energía,
JOSÉ IGNACIO ZUDAIRE ARANA.